

RAIMUNDO EL CANASTEROREKIN ELKARTASUNA!

**Musikarien kontrako
errepresiorik ez,
Instituzioak kritikatzeko
eskubidearen alde.**

Datorren otsailaren 12an Raimundo el Canastero musika-taldeko bost kide epaitegietara deituko dituzte deklaratzera, kanta bateko letrak mehatxuzko eta irainezko delitua dakarrela egotzita.

Testu hau sinatzen dugun talde eta musikari guztiok, lehenik eta behin, **gure elkartasuna eta babesa adierazi nahi diegu auzipetutako taldekideei.**

Aurreko udan egindako kanta baten aitzakian dator epaiketa. Lizarrako Jaietan udalak txosnagunea lekuz aldatu nahi zuela-eta, herrian zegoen ezinegona adierazteko eta udalaren jarrera salatzeke egin zuten Beef D'Alda kanta. Taldearen hitzetan: "gure alkate adeitsuaren jarrera autoritarioa salatzeke". Kantak hainbat ondorio izan zituen segituan: taldea zentsuratu dute hainbat ekitalditan; hedabideek, morboz eta faltsukeriaz, kriminalizazio- kanpaina hasi zuten taldearen kontra; Lizarrako Udalak taldearen aurkako mozioa onartu zuen ezein alderdiren kontrakotasunik gabe. Eta, esan bezala, auzia judizializatu ere egin dute, taldea epaitegira eramanda.

Testu hau sinatzen dugunok Raimundo el Canasteroren aurkako kanpaina eta gertakariak salatu nahi ditugu. Badakigu, gainera, ez direla bakarrak eta **ohikoak bihurtzen ari direla horrelako jokabideak musikarien kontra:** Yakovlev 42 taldekoak deklaratzera deitu zituzten iaz beren letrengatik, Black Marfil rapero iruindarrari kartzela-zigorra ezarri zioten beren letregantik... Aldarrikatu nahi dugu **kasu horiek guztiak adierazpen- askatasunaren kontrako erasoak direla eta zilegi dela musikaren bidez instituzioak eta boterea kritikatzea.**

Are gehiago, gure ustez **musika erraminta indartsua da kritika sozial eta politikorako** eta uste dugu artistok badugula kritika horiek egiteko ardura eta betebeharra.

Aurrera Raimundo El Canastero!

